




AURKIBIDEA

- 1.- BALDINTZA OROKORRAK
- 2.- BARIK NFC PROBA PILOTUAN IZENA EMAN
- 3.- BARIK NFC APLIKAZIOA INSTALATU
- 4.- BARIK NFC APP-A ERABILTZEN HASI
- 5.- TXARTELA IRAKURRI
- 6.- KONTSULTEN PANTAILA
- 7.- DIRU-TXARTELA > MUGIMENDUAK
- 8.- DIRU-TXARTELA > KARGATZEA
- 9.- HILEKOA > KARGATZEA
- 10.- ORDAINKETA - MERKATARITZA ELEKTRONIKO SEGURUA. BGPk ez du bankuko daturik gordetzen
- 11.- EROSKETAREN ORDAINAGIRIA:
- 12.- ORDAINKETAREN BERRESPENA, EROSKETAREN LABURPENA ETA TXARTELA GRABATZEA
- 13.- APP-AREN EGUNERATZEAK

1.- BALDINTZA OROKORRAK

- **Erabiltzailea** eta **pasahitza** eduki behar dituzu Barik sisteman (txartel erregistratua edo pertsonalizatua).
- **NFC teknologia** duen terminala eduki behar duzu, baita **Android 4.0** sistema eragilea **edo berriagoa** ere
- Aplikazioa **terminal bakarrean instala** daiteke. Baina **edozein Barik** karga dezakezu: zuria, gorria, argazkiduna, argazkirik gabea... eta **edozein erabiltzailerena**.
- Merkatuan terminal ugari daude; beraz, gerta daiteke **bateraezintasunak** egotea. Kasu horretan, ezin da bermatu aplikazioak ondo funtzionatuko duenik smartphone guztietan. (One Plus One; Samsung Galaxy Ace 2; Samsung A5, LG E-460) Iphone telefonoak ez dira proiektu pilotuan sartu.
- Proiektua probaldian dagoenez, gerta daiteke, zerbitzua hobetzeko asmoz aplikazioa **eguneratu** behar izatea. Erabiltzaileak aplikazioaren azken bertsioa erabili behar du beti.
- Sakelako telefonoetarako aplikazioa dagoen bezalaxe banatuko da; ondorioz, BGPk ez ditu bere gain hartuko aplikazioa sakelako telefonoan erabili edo instalatzeagatik zuzenean edo zeharka izan daitezkeen kalteak.
- BGP erabiltzailearekin harremanetan jarri ahal izango da, **esperientzia baloratzeko**.
- NFC proba pilotuak iraupen mugatua izango du; amaitzen denean erabakiko da zerbitzuarekin aurrera egingo den ala ez.
- Proiektu pilotuan parte hartzen duten pertsonak Nexus 6 markako 3 sakelako telefonoren zozketan sartuko dira. Oinarriak BGPren webgunean daude.


2.- BARIK NFC PROBA PILOTUAN IZENA EMAN



The screenshot shows the ctb website with a navigation bar and a main content area. A yellow circle highlights the 'nire barik-en sartu' button in the 'Berri guztiak' section. Below the main content, there are several news items and a sidebar with a search bar and a list of services.

1.- Erabiltzailea eta pasahitza eduki behar dituzu (txartel erregistratua edo pertsonalizatua) Bestela, joan Bezeroen Arretarako Bulego batera eta eman datuak

2.- Sartu www.ctb.eus helbidean; NIREBARIK atalean identifikatu behar zara, login-passworda sartuta. Gero sakatu NFC proba pilotua.




The screenshot shows the barik website with a navigation bar and a main content area. A yellow circle highlights the 'NFC pilotua' button in the 'barik' section. Below the main content, there are several news items and a sidebar with a search bar and a list of services.

Erabiltzaile:

Pasahitza:

Pasahitza ahaztu duzu?
[Ez daukat erabiltzaile eta pasahitza, nola erregistratzen naiz?](#)

2.- BARIK NFC PROBA PILOTUAN IZENA EMAN



3.- Login modura emandako helbide elektronikoan mezu bat jasoko duzu, **BARIK erabiltzailearen identifikazio zenbakia** zehazteko. Sartu zenbaki hori sakelako telefonorako aplikazioa instalatzen duzunean


4.- Egin klik mezu elektronikoaren estekan, Barik NFC aplikazioa sakelako telefonora jaisteko (barik.apk)

5.- Barik.apk fitxategia sakelako telefonora jaitsiko da, bide honetatik: **Aplikazioak/Deskargak**. Egin klik jaitsitako fitxategian, eta hasi aplikazioa instalatzen

6.- Jarraitu oharrak

Jatorri ezezagunetatik aplikazioak instalatzeko baimena eduki behar du telefonoak (**tresnak/segurtasuna/jatorri ezezaguna**)

3.- BARIK NFC APLIKAZIOA INSTALATU




Gogoratu jatorri ezezagunetatik aplikazioak instalatzeko baimena eduki behar duela telefonoak (tresnak/segurtasuna/jatorri ezezaguna)

Erabiltzaile Id. sartu behar duzu eskatzen zaizunean

App-a gailu batean bakarrik instala daiteke

App-a desinstalatu baduzu, eta berriz nire bezero zenbakiarekin instalatu nahi badut, gailu berean bakarrik egin ahal izango dut; ez beste batean


4.- BARIK NFC APP-A ERABILTZEN HASI



Hasi irakurtzen:

- A.- **Detekzio automatikoa:** Jarri sakelako telefonoa Barik txartelaren gainean, eta app-a automatikoki jarriko da martxan. NFC irakurteko app gehiago baduzu, aukeratu Barik App-a
- B.- **Eskuz hasi:** Sakatu Barik App-aren ikonoa, eta Barik txartela hurbiltzeko eskatuko dizu

NFC konexioa aktibatuta eduki behar duzu sakelako telefonoan



Wifi sare korporatibo batzuek mugatuta izan dezakete BGPren zerbitzarietarako sarbidea; orduan, sakelako telefonoko datuak erabili beharko dituzu.

5.- TXARTELA IRAKURRI



Irakurri txarteleko datuak

Hurbildu sakelako telefonoa Barik txartelera
Hobeto irakurtzeko, jarri txartela azalera lau baten
gainean (metalikoa ez dena), eta gero jarri sakelako
telefonoa gainean

Jarri txartela sakelako telefonoko NFC antena dagoen
tokiarekin parekatuta

Ez mugitu txartela, harik eta irakurtzen amaitu arte eta
pantailan datuak agertu arte

Telefono txiki batzuetan arazoak egon daitezke txartelak
irakurtzeko, NFC antenaren dimentsioengatik (4,5
hazbete baino gutxiagoko telefonoetan)
Horrela bada, galdetu BGPri

6.- KONTSULTEN PANTAILA



Mezuen botoia: txarteleko mezuak gordetzen ditu; mezurik badago, zenbaki bat agertuko da gutun-azalaren gainean

Berriz irakurtzeko botoia: txartelaren irakurketa berria egiten du

Datu orokorrak: txartel zk., iraungitzea, erabiltzailearen izena, kargatu diren txartelak, saldoa.

Diru-txartela > Kargatzea: diru-txartela kargatzen du

Diru-txartela > Mugimenduak: Barik txartelaren azken mugimenduak erakusten ditu

Hilekoa > Kargatzea: Hileko txartela kargatzen du

Hileko > Berritzea: hileko txartel berria kargatzen du, azkenengoz kargatutakoaren antzera

Botoi gorria: erabili daitekeen aukera

Botoi grisa: erabili EZIN den aukera. Desaktibatuta dauden botoiak sakatzean, mezu batean azalduko da arrazoia

7.- DIRU-TXARTELA > MUGIMENDUAK



Fecha	Operador	Importe	Saldo
07/07 12:03	NFC	5.0	23.26
07/07 11:28	NFC	5.0	18.26
07/07 11:25	NFC	5.0	13.26
05/07 13:04	MB	0.0	8.26
05/07 12:54	MB	-0.82	8.26
05/07 11:52	MB	0.0	9.08
05/07 11:39	MB	-0.82	9.08
18/06 15:52	NFC	5.0	9.9
17/06 20:39	BZU	-0.35	4.9



Fecha	Operador	Descripción	Importe	Saldo
11/03 10:58	TXO	Validación Entrada	-1.0	46.41
11/03 10:58	TXO	Regularización Salida Monedero	-0.28	47.41
11/03 10:32	MB	Validación Entrada	-0.82	47.69
11/03 10:27	MB	Validación Entrada	0.0	48.51

Hatza eskuinetik ezkerrera irristatuz, pantaila aldatuko da eta mugimendu gehiago ikusiko dira

Pantaila horizontalean jarriz gero (telefonoari bira emanaz), zein eragiketa egin duzun ikusi ahal izango duzu

8.- DIRU-TXARTELA > KARGATZEA





Aukeratu zenbat diru kargatu nahi duzun

Barik BFC app-arekin gehienez 50 euro
karga daitezke

Barik txartelaren saldoa gehienez 90
eurokoa izan daiteke

9.- HILEKOA > KARGATZEA




1. urratsa: aukeratu zein operadoretan egingo duzun bidai

2. urratsa: aukeratu zonak

Hileko txartela ezin da kargatu, baldin eta:


- Hileko txartel bat erabilgarri badago, balio-epea amaitu ez zaiolako
- Saldoa negatiboa bada
- Erregularizazioen bat egin behar bada, eta saldoa nahikoa ez bada

9.- HILEKOA > KARGATZEA > HANDITU MAPA



Operadorearen maparen gainean sakatuz gero handitu egingo da
Pantaila hauek horizontalean ikusten dira hobeto, zure sakelako telefonoak aukeratu hori aktibatuta badu

10.- ORDAINKETA - MERKATARITZA ELEKTRONIKO SEGURUA. (BGPk ez du bankuko daturik gordetzen)



Ordainketen atebidera
konektatzen da

1.- Sartu txartelaren
zenbakia

2.- Sartu txartelaren
iraungitze-data


3.- Sartu CCV segurtasun-
kodea

4.- Sakatu "Ordaindu"

5.- Sartu SMS bidez jaso
duzun segurtasun-kodea
(hurrengo pantaila)

Banketxearen plataformak ordaintzeko beste modu batzuk, berriak eta seguruak, onartzen ditu.
(www.visaeurope.es/pagos-con-visa/pagos-vme-by-visa)

10.- ORDAINKETA - MERKATARITZA ELEKTRONIKO SEGURUA



Ordaindu sakatzen duzunean (4. urratsa), txartelaren jabea den banketxearen **merkataritza elektronikoa** izeneko pantailara igaroko zara

5.- SMS bat jasoko duzu eragiketa baliozkotzeko kodearekin. Sartu kode hori dagokion tartean

6.- Baieztatu ordainketa

11.- EROSKETAREN ORDAINAGIRIA:



barik	
Bizkaiko Garraio Partzuergoa Consortio de Transportes de Bizkaia IFZ-NIF: G48108203	
Saltokia/Punto Venta: CTB Barik NFC 07/07/2015 10:44 Terminala: 001 Transakzioa: 1931	

RECARGA / BIRKARGA	

No./Zk.	1101 056672 111
Caduca/Epemuga	25/06/2017
Tipo/mota:	Personalizada/Personalizatuta
Cliente/Bezero:	6184818
SALDO ANTERIOR/AURREKO SALDOA 2,38	

RECARGA/BIRKARGA 10,00	

SALDO TXARTELAN/EN TARJETA 12,38	

MENSUAL CADUCADO/HILEKOA IRAUNGITA Z1 METRO	
Inicio/Hasiera	12/02/2015
Caduca/Epemuga	13/03/2015


Pago Bancario/Banku ordainketa	
Importe/Zenbatekoa	10,00 Eur
Comercio/Saltokia	CTB Barik NFC-59217521
Terminala	001
Nº Pedido/Eskaera Zk.	2667
Fecha/Data	07/07/2015 10:44
Descripción/Azalpena	Barik-1101056672111-Monedero
Nº Autorización/Baimen Zk.	441668
S.O.V. y 10% I.V.A. incluidos B.D.A. eta 10% B.E.2. barne	

Aurreko eragiketa baieztatu ostean,
kargaren eta ordainketaren
ordainagiria agertuko da

Ordainagiria sakelako
telefonoaren barruko memorian
gorde behar da, hemen:
storage/emulated/0/Download.
Aplikazio hauetatik: galeria,
argazkiak, fitxategien
esploratzailea, beste batzuk...

Ordainagiria posta elektronikoz,
whatsappez... bidali dezakezu.

12.- ORDAINKETAREN BERRESPENA, EROSKETAREN LABURPENA ETA TXARTELA GRABATZEA




Kargaren eta ordainketaren laburpena erakusten du

Adierazitakoa sakatzen duzunean, berriz jarri behar duzu sakelako telefonoa txartelaren gainean. Bestela ez da karga grabatuko

Karga ondo egin dela idatzita duen mezua jasoko duzu

Puntu horretan, karga ez bada ondo egin, BGPren zerbitzarian gordeta egongo da. Irakurri berriz txartela sakelako telefonoarekin, eta karga amaituko da.

13.- APP-AREN EGUNERATZEAK



Gogoratu jatorri ezezagunetik aplikazioak instalatzeko baimena eduki behar duela telefonoak (tresnak/segurtasuna/jatorri ezezaguna)

Gerta daiteke, zerbitzua hobetzeko asmoz aplikazioa **eguneratu** behar izatea

Eguneratze berriren bat badago, mezu bat izango duzu informazio horrekin, Barik NFC app-a abiaraztean

Egin klik ikusten duzun mezuaren estekan, Barik NFC aplikazioaren bertsio berria jaisteko

Barik.apk fitxategia sakelako telefonora jaitsiko da, eta hemen kontsulta dezakezu: **Aplikazioak/Deskargak**. Egin klik jaitsitako fitxategian, eta hasi aplikazioa instalatzen

Jarraitu aplikazioaren oharak